

KULTURKRITIKA

» LIBURUA

Memoriaren bidegurutzean



Amaia Serrano Mariezkurrena



Antzararen bidea

JOKIN MUÑOZ

Alberdania, 2007

80 urte igaro dira 1936ko Gerrak eztanda egin zuenetik, eta iragan hori oraindik ate-joka dugu. Euskal komunikabideetan gerra galdu zutenen oroitzapenak biltzen ari diren bezala, errepresioaren arduradunen gorai-pamenak ezabatzen dihardute Nafarroako kaleetan. Historia berridazten, birsortzen eta moldatzen ari gara etengabe.

2016ko Donostiako Zinemaldiak ere egin dio keinu memoriari (ala ahantzurari, nola begiratzen den), errealtatea iraganean bizi duen emakume errenteriarraren istorioarekin. *Ni ez naiz hemengoa dio* Josebek bertan, Joseba Sarrionandiak zioen bezalatsu. Ildo horretan, gomuta-lekutzat har dezakegu *Antzararen bidea*. Eleberriak ia hamarkada bete badu ere, gaia nahiz garaia oso gertukoak ditugu euskaldunok, eta bertako pertsonaiek bizi-bizirik dira.

1936ko nafar Erribera eta 2003ko Donostia. Bi une historiko horietan pentsamendu eta jokabide ezberdinetako pertsonaiak biltzen ditu Jokín Muñozek, nahiz eta polifonia horretan bi bakarlari nagusitzen diren: batetik, gerra hasi berriaren Donostiara ihes egin behar duen agurea (Jesus) eta, bestetik, semea bonba bat manipulatzeko ari zela hil zaion emakume gaztea (Lisa). Ezinezkoa dirudien ispilua alde banatan dago bakoitza, kezka existentzial berberen aurkia eta ifrentzua direla konturatzeraz eramaten dituen arte. Ahots askoren artean bi horiek nabarmentzen dira, baina beste pertsonaia batzuen etengabeko zurrumurrak ere zeharkatzen ditu istorioak. Lehenaldiko oihartzunak dakartzan marmar horretan topatzen ditugu, esaterako, bi emakume oso

ezberdin: Paula eta Candi. Eguna eta gaua, baina bi-biak zapalkuntza berak berdindurik, gerrako genero-indarkeriak markaturik. Bata, eraila; bestea, iragan hartan harrapatua.

Jokín Muñozek, ohikoa duen gisan, euskaldunon minez dihardu, gure gizartearen arrakaletan arakatzeko kritiko agertzen da, dela 36ko Gerrari buruzko diskurtsoan jazarriak izan diren taldeen ahotsak gerturatuz, dela gatazkaren inguruko irakurketa-proposemenean ezker abertzaleen jarrera batzuk salatuz.

Hori guztia hizkuntza literario landu eta onduan eskaintzen digu idazleak: Erriberako paisaien deskribapen ederrak, narratzailearen ironia fina, askotariko ispilujokoak, intrigari eusten dion erritmoa, pertsonaia batzuen umorea... Hala, zilegi den memoriaren eta ez denaren arteko tentsioa azaleratuz, hamaika galdera eta berrirakurketa gorpuzten ditu *Antzararen bidea* eleberrian, denborari iskin egiteko eta haren joanaz hausnartzeko aitzakia bilakatzen dela. ■

Jokín Muñoz Trigo idazlea (*Castejón, Nafarroa; 1963*).

